

Irakurle txoko berriak Bizkaian

Iñaki Uriartek irekiko du zikloa, hilaren 26an, eta Iñaxio Mujikak eta Willy Uribek emango diote jarraipena

ERREDAKZIOA. BILBO

Irakurketa Txokoak hasiko du aurtengo Bizkaiko Foru Liburutegiaren programazioa; lehen saioa urtarrilaren 26an izango da, Iñaki Uriartek gidaturik (2011ko Euskadi saria, saiakeran). Txoko horretan, irakurketan interesa duten pertsonak bilduko dira, eta aukera egongo da irakurleak eta idazleak elkartzeko. Hilean behin izango dira topaketak, gaztelaniaz eta euskaraz, txandaka. Honako idazle hauek ere parte hartuko dute irakurketa txokoan: Inazio Mujikak, Willy Uribek, Arantxa Urretabizkaiak, Elena Morenok, Joanes Urkixok, Jon Bilbaok eta Uxue Alberdik.

Irakurketa Txokoan bezala, Euskara Irakurle Taldeetan ere irakurketaz gozatzea da helburua, bai eta jendea Irakurketa Txokoan parte hartzera animatzea ere. Jarduera hori otsailaren 9tik apirilaren 19ra eta irailaren 20tik abenduaren 13ra izango da.

Irakurle taldea martxoaren 1etik ekainaren 7ra egingo da; hamabost egunean behin egingo dira, eta irakurketa lanekin osatuko dira. Jarduera horien osagarri modura beste bi jarduera egingo dira. Lehenengoan, Letrak eta futbola (3): zinea, musika, poesia eta futbola) titulupean, Foru Liburutegiak eta Athletic Club fundazioak antolatutako mahai inguruak eta hitzaldiak egingo dira. Futbolari eta idazle batzuek literaturaz hitz egingo dute. Ziklo hori maiatzaren 3, 10 eta 17an egingo da. Bigarren jarduera LibuTEKia izeneko da, kultura munduan teknologia berriak erabiltzeko gakoak aztertuko dira; azaroaren 13an eta 14an izango da.

Horrez gainera, bi erakusketa egingo dira Foru Liburutegiaren programazioaren barruan: bata, Egillorren lanari buruzkoa, eta, bestea, Beste liburuak-Otros libros izeneko. Era berean, hiru lantegi egingo dira, eta Bizkaidatz saria ere antolatuko du Foru Aldundiak.